

ARGIA

ZERUKO

* * * 1963 - Dagonillak 11 - ASTEKARIA - XXVI'garren urtea - 24'garren Zenbakia * * *

Ikaragarrizko lur-ikara Skoplye'n

bi milla illak eta iru milla zaurituak arkitu dituzte

Ondamenak larogei ta bots bat milla milloi izango omen dira.

Uztailaren 27'an, Yugoestia'ko erri bikain batean, Skoplyen izenez, lur-ikara aundia izan zan. Segundo batean bereun ta ogei millako uria arri ta zakar pilla besterik eztan. Argi indarrak uts egin zuten. Urrutizkiña ta deadar egiteko beste bideak moztuta gelditu ziran. Ur gutxi, egurki beroa eta ustelki asko diralarik, gaitza sortuko ote dan bildur dira. Usai txarra omen dago inguru aietan, baña indizioi ta beste botikaj eskerrak, oraindik ez da gaitz txarrik sortu.

biurto ziran. Soroak eta bideak zirrastuz zirrastu irikita arkitzen dira. Zenbat kalte egin dan ezin igarri. Teknikoak diotenez, larogei ta bots bat milla milloi

bai gutxienez. Dagonillaren 2'an bildurgarrizko ekaitz erori da. Eta estalpetan arkitzen ziranak larru-gorri dagozte.

3'garren orrialdean buketzen du

TXINA HIMALAYA'KO SAKONETAN ARMAMENTUA TA GUDARI SAILLAK BILTZEN ARI DA

Indiako mugak berriz arriskuan

NEHRU'K ERNAI JARRI DU ERRIA

Berriak India'tik datorzkgu. Egun auetan, India'ko mugan, Himalaya'tik aruntz, txinatar gudari sail aundiak ikusi dituzte. Sakonez sakon barruti luzoan zear zabalduta dira. Armamentu aundia eta ugaria dakarte berekin eta ainbeste gertute-lan dabilzkiten ezkerro luzaroko igarritzen da. Gudari sailak India'ko zatian, an eta eman, izkilluz jantzita azaltzen dira, anga berri jakitearren.

GAUZAK «GORRI GORRI»

Nueva Delhi'ko gobernuak dionez, gauzak «gorri gorri» jartzen ari dira. Pekin'ko zuzentzaleak, gora bera oien berri eman diote, aiek ordea gezurtzat artu dituzte, indiatarrak noiznai Txina'ko lur gaiean dabilzuala esanez.

NEHRU LARRI

India'ko lendakari dan Nehru ministroak, erri guztiari dei bat egin dio: «Gure begien aurrean —esan zien berak— korapillo itsusiak dauzkagu. Nor daki, zenbat alegin barko diran, gure erriaren alde. Danak ernai ta bizi egon bear gera edozer gauzetarako».

MADRID'EN BI LEKUTAN BOMBAK LERTU DIRA

Arrapatu dituzte gaizkilleak

Uztailaren 27'an eta 29'an bi bomba lertu dira Madrid'ko «Dirección de Seguridad y Delegación de Sindicatos» en. Ogei ta hamar zaurituak izan ziran eta amasei urteko nekaxta oso gaizki, alegia.

Gaizkilleak arrapatu dituzte: Franzisko Granados Gata, Balenziarra eta Joakin Delgado Martínez, Barzelonakoa. Gorteta beste ogei bomba, su-izkillak eta tresna txar asko billatu dizkiote.

UDARAKO EKAITZAK

San Inazio egunaren ondotik España'ko lurraldean ekaitz zakarrak izan dira. Albazete izan da getiena astindua. Probintzi on-tako ogei erriartako maast-olibo koserva dana txikituia gelditu da. Migel Gurutze Hernández, Albazete'ko Gobernadore jaunak

zinez, larogei milloitik eun milloiko ondamenak egin dira. Naparra'n ere ekaitz aundiak izan dira. Arri-erasoak maast asko txetu dute. Lumbier erria negargarri gelditu da. Etxe batzuk ere zapalduta gelditu ziran.

ZER GERTATZEN DA ERROMANIKO IRUDIEKIN?

Gipuzkoan aldendu diraneri buruz, salatari gisan

Gipuzkoan, ustez, urri ziran erromaniko garaiko arraztoak. Baña aztarteketan arituz konturatzten gera gure probintzi au

probintziako auzoetan eleiak ikusten ta zenbait erromaniko agiri billatuak dirut. Ta, ontaz jardunaz gauza batek nau, sa-



Asligarribia'ko Kristo au galdutzei eman genezake (Foto Oianguren)

eztala orren txiroa estilo orretako agoriekin. Azkenengo urte auetan naukoa agiri berri arkitu da lengo uste ura gezurtatzeko.

Gai onetan, beste askotan bezela, on Manuel Lekuona degu lanik geien egin duana, ta bere agiriak, laburki baño ezpada ere, «Egan» euskerazko aldizkarietan azaldu ditu. Berak dionez, ezta eleiza osorik arkitzen baña bai pusketak, ate, leio eta abside-pusketak, ta oietzaz gahera, batoio-ponte, gurutze, irudi ta abar.

Lekuona-ren lanari jarraituz ari da Luis Peña Basurto adiskidea gai berdillaren azterketak eginaz, batez ere ate, leio ta batoio-ponteen billari, katalogo bat egiteko asmoetan. Adiskide oni lagundu nairik, mendiz-mendi ibillia naiz gure

latari biurtzeraño. Kontaratu joaztela. Zer gertatzen da? Ez det esan nai gaitzakeriz oztu edo saldu dituztenik. Ori geitxi litzake. Baliteke beren baliokin konturatzeko baztertza edo ematea. Baña orrek ere arritzen nau. Ono dakit Gipuzkoako erriro batean argizaiola baxtertu nituztela, eleiztarrei esanaz eleiza zikitzen zutela ta kendu egin bear zinala bestelako kandelak jartzeko. Baña, erriro artakoak ez badakite ere, ondortxo dakit argizaiola aiek saldu egin zituztela. Ez uste au asmatua danik; testigoak ere badira.

Gure eleizatetik ezkatutu diranak argizaiolak bakarrik balira, ixillik egongo nintzake, baña zori txarrez bada txiduz ezin

6'garren orrialdean buketzen du

ZER GETATZEN DA...?

genezakeanik ere. Ta aldendu diran bi erromaniko eta tranzi-naiz irudi zaarrak aldenduaz di-zioke baten-agiriak emango di-tut, beren oroitzapena gorde de-din eta arduradun izan bear zi-ranen lotsarirako.

AZITAIN-GO KRISTO GURUTZATUA

1927-garren urtean, Eibar-ko erretoe izan zan Eugenio Urroz-ek arkitu zuan Azitain-go eleizan arrizko gurutze erro-maniko bat Jesukristoreen iru-diaikin. Kristo gurutzatu ura, koruko orman jarrita egoan, ta obeki gorde nairik, andik kendu eta San Andres parrokiako sakristiara eraman omen zuan. "Historia de la Virgen de Arru-te" liburuaren 14-garregoko orrialdean aipatzen du Urroz-

ek. Ortik jaso nuan lenbiziko berria. Azitain-go eleizan orain-dik bertan agiri da, koruko or-man, ura kendu zutenan utzi-tako zuloa. Ta auzokoak orain-dik gogoratzen dira gurutze are-kin, batez ere Paulo Agirre os-petsua.

Gurutzeak zeraman Kristoren irudiak burua zoragarritzko ede-rra omen zuan. Ori zion Urroz-ek.

Gerratian sakristia zati bat erre zan baña arrizko gurutzea ezin zezakean erre, ainbat gu-txiago paper-agiririk geienak salbatu ziralarik. Ditekeana da, erdi erretako sakristia ura bo-tatzerakoan, Kristoa ere kendu ta norabait bialtzea, baliozkoa etzalakoan. Baña azkenengo au oso gaitza da sinistea. Ta orre-la balitz ere naikoa pekatu da,

Nere aldetik, egin dedanagaitik zaintzalle izan bear ziranentzat. ez det azterranik atera. Galdut-zat eman genezake.

SANTA KLARA-KO AMA BIRJIÑA

Tolosa-n ere beste irudi erro-maniko bat aldendu da. Ta naiago nuke gezurra balitz. Naizta nere salatez au gezurta-tzeko berriz agertu.

Irudi erromaniko onen agiria Lekuona-k eman zuan «Egan» aldizkarian «Ikusi 1957-garren urtekoan 161-garren orrialdean». Berak ekarrena jarriko degu le-rruz-lerro: «Santa Klara-ren sorreraren testigu izandako, ino'az ere... Aurrik ez du. Gal-dua. Bañan erdi-erdian izanda-ko señaleark argi dauzka. Gañe-rakoan bi eskuaz eta bi belu-nak eta bi oñak berdin-berdi-ñean, eta berdin baita soñekoen tolesturak ere... Aurpegia, ber-ritz, parra-murritzik batere ga-be, seriotasun oituan...».


Peña-ri bialdu nion berri au eta beste gabe joan zan Tolosa-ra. Baña, arrigarrial An ez zala inoiz izan orrelako irudirik, esan zien Santa Klara-ko ko-mentuan ber-bertan. Baña, Le-kuona jaunak argazkia ere ba-du irudi orren testigantzan. Zer gertatu da?

Esango genieke Santa Klara-koeri, ta errazoi jutzuz gañera, eleiz irudi oiek erri guzia dute-la jabetzat. Inork eztu, edo ez luke izan bear, almenik orrela-ko gauza bat kentzeko, erriari aitzen eman gabe.

ASTIGARRIBIA-KO KRISTO GURUTZATUA

Ori ezta dana. Ara irugarren bat. Erromaniko azkenaldikoa edo gotiku asierakoa da. Obeto esan: izan zan, edo nunbait da. Orrelakoa da Astigarribia-ko Kristoren burubidea.

Atsegin zait, noizipeinean, Ojaguren-en argazkien artxi-boan azterketa batzuk egitea, ta ortan, bere indaleki det lagun-tzalle bikaña. Orrela, bertan nenbillen batean, ustekabeen es-ukuratu nuen Kristo gurutzatu-aren irudi eder bat. Ederra ben-netan. Eta zan, 1936-garren ur-tean, Elgezua irudigileari la-gunduz Astigarribia-ko eleiza



Azitain-go eleizan metro bateko zuloa gelditu da Kristo gurutzatua kendu zuten orman.

(Foto San Martin)

DIZDIRAK

AURRERONTZ ALA ATZERONTZ?

Aita Intxausti'k «Egan» de-ritzan agerkarian azkeneko gu-dateik sortu dan filosofiaz ederki mintzatzen zaigu bere betiko idaz-tankera lirainean. «Gizona urduri altxa da trintxe-ra zulotatik». Zientzia —aurre-rapenaren jauregia ondatuta-koan etorkizun— bidea garbitu egin zaigu-ta gaurko garaian «ezarian ezarian bagoaz Jain-koaganaiño». Oraingo pentsa-mendua ori baiño askoz naas-garrigoa da, nere uestez.

Adibidez, positibismoa ezta-go ondatuta, ez il-zorian, bat-zuek jotzen duten bezela. Comte ta Spencer'en sistema zaren garra ezta itzali ino'az ere, Marx'ek piztutakoa inoiz baiño pizkorrago baitegu gaur.

Marxismoaren kanpo arrazoi-pentsaera burgesak ere, Brun-schwig ta Husserl'en antzo, ma-kiña bat maixu ta segitzaille os-petsu badauka noski.

Zientizismoari buruz zein au-sartuko litzake esatera bereak egin dula? Jende-samaida, naiz sartaldetarra naiz sortaldetarra, aurrerapenaren mirari berrietik zintzilika dago beintzat. Zo-zokeri galanta!

Erljiro pentsaera aurrera badi-joa ezetizismoa ere sekula bai-ño indartsu ta zabalduagoa de-gu oraingoan.

Egia esan, gaurko munduak milla bideri batean ekin, eta gu-zietatik aurrerakada larriak egi-ten ditu. Gogo guzitarako pre-dikak franko entzun ditzake

eta predikazailleak nork bere ideia garai ateratzeaz dala esan-go dizute. Gure mendean mun-dua gaiztotu edo ondu ote dan ezin jakin dezakegu bañan gau-za bat hadakigu segurrik: aun-dietu dala ikarakarriro alde gu-zietatik.

Gaetan Picon deritzan idazla-ri prantzesak dio arrazoi askoz «gaurko pentsamendua krisisen dagon mundu baten dizdira da-la». Ondorena da guziak daki-zuten naaspilla ederra.

Mozkor-lozorroan bezala au-rrerontz edo atzerontz ote ga-biltzan inork eztaiki: baliteke biak batera izatea eta noiz ere dunba gure gure mundu ero onek.

Carlos Santamaría'k

IRUN'DIK

«GURE ETXEA»

Euskal-Poema berria

La Salle'nea komentua aundi-tu egin dabe, eta lanak ama-itzean jai batzuk egin dira, sa-rata aundi barik, Jaunari eske-riak emanez. Meza bat esan da komentua enparantzan, Aita Larrañaga gotzain jaunak. Ara-güés aitaren Arantzazuko Me-za kantatu dute. Joan Batista Salleko Deunaren gorputz-ez-urra ekarri eben Billboko ikaste-txetik jaietarako. Fraide-ikasle diran gazteak euskal dantzak egin dituzte.

Ogei ta bigarren egunean (as-telenean), arratsaldeko zazpire-tan, kontzertu eder bat eman dabe. Azpiazu maisua zuzenda-ri dala. Lendabizikoz, Donos-tiako Camarakoak Haydn'en «Elojua» deritxon Sinfonia (101'garrena, Re Aundian). Ge-ro, ikasle eta fraide askoren ar-tean (eun eta berrogei bat in-guru kantari) eta Donostiako Camarakoek emon dabe Eus-kal-Poema berri bat: «Gure Etxea» izena eman jakona. Mu-sikea Tomás Aragüés, 27 urte-dun Anai gazteak egiña, eta olerkia euskeraz idatzia Anai Inazio Olabeagak. Sei zati dau-koz poema berri onek:

Lendabizikoa. Asiera. «Kabi goxo». Au da, La-Salle'nea ko-mentua, Fraide-ikasleen etxea, gazteen kabi goxo.

Bigarren zatia. «Usotegi sen-doa». La Salle'nea, komentu aundia eta ederra duntu, papar zuridun euskaldun anaiez be-tea... Uso lirain papar-txurien etxe alai.

Irugarrena. «Muxu ta ekaitz». Irun inguruak: Martzial Deun-aren mendian agertzen da egu-nero eguzkia. Muxu ematen dio

Bidasoako ibarrari, argia eta be-rotasuna, bizia. Jaizkibel men-dia bestealdean, Kantauriko itxasoaren ertzean, aize ekaitz gogor eta euriak ugari ekartzen dabezana. Fraide-ikasleen bio-tza: pakea eta ekaitza.

Laugarrena. «Otoitza». Ama-tu zirean lenago-lenagoko zor-giñak eta Ayako Arrian. Orain Arkale Mendian Kristoren Ku-rutzea, eta Jaizkiblean Guada-lupeko Ama-Birjiña.

Bostgarrena. «Zortzikoa». Euskal odola biztuten da zor-tziko au entzuteaz. Jaunaren morroi izateko Euskalerriko mendietako etxeak itxi dituzten gazteak: Kantauriko itxasoak legortuko dituzte zuen negar-antpuloak. Bidasoa-aldeko men-diak ere zuen jaioterrikoan anaia dira.

Seigarrena. «Ugaritu». Bai, Iparragirrearen «Eman da zabal zazu munduan frutua» edo. Joan Batista Sallekoaren seme egin zeraten euskaldun gazteak, zabaldu egizute mundua ziar Kristoren Egia. Eta ez astu jai-o zeraten Erriaz, ez ukatu euskal-duntasuna.

Gero, Aragüés Tomasek egin-dako Magnificat. Frantzis Ara-güés Anai (Tomasen anai, eta biok Aragüés musikui mai-suaren semeak) piano eta orga-no-jotzaille. Azpiazu maisuak egin zuen zuzendari, eta txalo aundiak entzun zituzten denak.

Martitxen arratsaldean ama-tu ziran jaiak. Billbora eraman zuten Joan Batista Deunaren gurputz-ezurra. Eliz-kantuz eta txistulariak «Agur Jaunak» jo-rik egin zan asken agurra.

N. A. G.

zarreen atera zuan fotografi bat.

Motriku-ko Astigarribia au-zoko eleizak ditu Gipuzkoan diran eleizen agiririk zaarrenak noski. Bere orma batean erro-maniko-aurretiko leio bat du.

Mozarabe aidekoa ematen du. Ta orrez gañera, San Millán de la Cogolla-n arkitu zan XII-garren mendeko liburu-zarrean ai-patzen omen da: 1108-garren urtean Dom Beñat Astaratz, Baijona-ko Gotzaina izan omen zan Astigarribia-n Ander Aposto-lu Donearen eleiza konsagra-tzen.

Argazkiko irudiak mende ori baiño geroztikoagoa ematen du, Peña-ren uestez XIII-garren mendearren azkenaldikoa izan bear du. Burua zero erro-man-i-ko erara egiña du ta gañerakoa

gotiku asierakoaren antza du. Zurezkoa da, ta geroztik egin-dako gurutze batean egoan.

Astigarribia-ko eleizaren baz-ter guziak arakatu ditut, baita auzokoeri galdetu ere, ta ez det ezuzen lorrantz arkitu. Beraz, au ere galdutzat eman geneza-ke.

Au da Gipuzkoako irudi zaar eta urrien burubidea.

Gure kulturaren alderako, gure arkeoloji aberastasun mu-rritzaren alderako, gure kondai-raren jakintza alderako, eta gu-re gizonki jokatu bearraren al-derako, degun apurra zaindu bearraren gera. Lengoen zana, oraingoena aña, gerokeena da. Gure erriaren izen onak eska-rtzen digu gorde bearra.

Juan San Martin

"ZERUKO ARGIA" - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN
FRANQUEO CONCERTADO N.º 37 - 21

JUAN SAN MARTIN
Oquendo de Arana 1963